

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Joxean Korta Fachado*

*Pasaia,  
Gipuzkoa  
(1930-2020)*

Aurkibidea



## Biografia



Torreatzen jaioa. Ama San Pedrokoa zuen eta aita ere umetatik han bizitua zen, jaiotzez Getxokoa izan arren; hark Pysben egiten zuen lana, bakailao lantegian. Aitona galiziarra zuen. Seme bakarra zen. Eskola publikoan ibili zen lehenengo eta gero Trintxerpeko Cervantes akademian. 14 urterekin hasi zen lanean, saregile. Berrotaranekin 27 urtean ibili zen. Lanik gabe geratzean arkupeetako arrandegia hartu zuen. Arraunean ibili izan da. Ezkondu egin zen eta bi seme izan zituzten.

## Zintak

### PAS-015

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Data:** 2011-06-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Aitona Galiziatik etorria

- **Erref:** PAS-015/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

<p>Ama San Pedrokoa zen, baina bere aita Galiziakoa: soldaduska egitera hona etorri zen eta hemen ezkondu zen. 74 urte zituela itzuli zen lehenengo aldiz Galiziara arrebari bisita egitera. Gerora Trintxerpera galiziar asko etorri ziren.</p>

## 2. Txoriak harrapatzeko zaletasuna

- **Erref:** PAS-015/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

### Laburpena:

<p>Umetan txoriak harrapatzen ibiltzen ziren, abata (erreklamua) nola egiten zuten azaltzen du. Neguan amua jartzen zuten zizarearekin, eta orduan harrapatutako txoriak jan egiten zituzten.</p>

## 3. Lapak biltzen

- **Erref:** PAS-015/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harrialdeko arrantza

### Laburpena:

<p>Arrokatara gutxi joaten ziren, arriskutsua baitzen. Lapak biltzeko labana erabiltzen zuten. Lapa nola jaten den aipatzen du.</p>

## 4. Lapak eta muskuiluak

- **Erref:** PAS-015/011
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harrialdeko arrantza

### Laburpena:

<p>Lehen txirla asko harrapatzen zen. Marea oso behean zegoenean, aitzurra hartuta joaten ziren txirla bila. Muskuilu asko zegoen lehen hemen, baina ez zuen orain adina estimazio.</p>

## 5. Sareak tindatzeko ohitura

- **Erref:** PAS-015/014
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:25:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

### Laburpena:

<p>Aitona sareak josten aritzen zen. Sareak tindatzeko zer egiten zen azaltzen du. Sareak tindatuz gero, denbora gehiago irauten zuten.</p>

## 6. Sarearen araberako lanak

- **Erref:** PAS-015/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:26:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

### Laburpena:

<p>Arrasteroen sareak gizonak konpontzen zituzten, eta bapore txikietako sareak, ordea, emakumeek. Sareen artean zeuden aldeak azaltzen ditu.</p>

## 7. Sareak, hariak eta orratzak

- **Erref:** PAS-015/017
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

### Laburpena:

<p>Hainbat sare mota zeuden, eta josteko orratzak ere tamaina ugariatukoak ziren. Hariak hainbat klasetakoak ziren eta Alacant aldetik ekartzen zituzten. Sareak nola prestatzen diren aipatzen du.</p>

## 8. Sarea gora eta behera

- **Erref:** PAS-015/019
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:30:39. **Bukatu:** 00:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

### Laburpena:

<p>Sarearen zatiak aipatzen ditu. Sarea hondora joateko, kateak jartzen zituzten, eta sarea gora altxatzeko, kortxoak.</p>

## 9. Baporeak binaka eta hirunaka

- **Erref:** PAS-015/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

### Laburpena:

<p>Baporeak binaka ibiltzen ziren. Gran Sol aldera joaten zirenean arrantzan, hiru itsasontzi joaten ziren, eta nola moldatzen ziren orduan aipatzen du.

Sareak tindatzeko askak egoten ziren, eta nola tindatzen zituzten azaltzen du. Baporea lehorrera etortzen zen bakoitzean tindatu behar izaten zuten sarea, eta hilabete gutxi batzuk irauten zuten sare haiek.</p>

## 10. Sareen eta barkuen bilakaera Pasaian

- **Erref:** PAS-015/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:37:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

### Laburpena:

<p>Guztira 190 barku zeuden Pasaian, eta beraz, 400 saregile inguru egongo ziren. Gaur egun ez dago hainbeste barku eta saregile gutxi behar da. Sareak ere aldatu egin dira.</p>

## 11. Barkuak lehorrera iristen zireneko lanak

- **Erref:** PAS-015/023
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:37:13. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

### Laburpena:

<p>Lehen Pasaian saregile asko zeuden. Barkuak iristen zirenean, hainbat lan egin behar izaten ziren: arrainak deskargatu, pisatu, saldu... Arrainak otarreetan eta kaxatan sartzen ziren.</p>

## 12. Arrainaren salmentako arauak

- **Erref:** PAS-015/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

### Laburpena:

<p>Barkuen artean zozketa egiten zuten arraina nork lehenengo saldu erabakitzeke; beste batzuetan, lehorrera iristen ziren ordenaren arabera egiten zuten salmenta. Salmenta non egiten zen azaltzen du.</p>

## 13. Arrainaren salmentako sistema

- **Erref:** PAS-015/027
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

**Laburpena:**

<p>Arrainaren salmenta goizeko 6etan hasten zen, eta askotan goizeko 11k arte egoten ziren han. Salmentako sistemari buruz hitz egiten du.</p>

**14. Arraunean hanka-hutsik**

- **Erref:** PAS-015/031
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena:**

<p>Arraunean ibili zen gaztetan, baina ezkondu zenean utzi egin zuen. Arraunean hanka-hutsik ibiltzen ziren. Makina bat katarro harrapatu zuten horregatik. Entrenamenduetan zer egiten zuten azaltzen du.</p>

**15. Gerraren beldur, ihesi**

- **Erref:** PAS-015/034
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:55:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena:**

<p>Gerra hasi zenean, sei urte zituen Joxeanek. Frantziara egin zuten ihes bapote txiki batean, eta 42 egun egon ziren han. Azkenean, Lezoko apaiza joan zen beraien bila. Pasaian baziren Errusiara joan zirenak ere gerratik ihesi.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-02-21*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)